



Argitara, latsarien lana

Herriko garbitokian aritzen ziren emakumeen lana aitortu dute Zalduondon. / 2

ALBERTO MELENDEZ



**Lautadan parke
eolikoak paratzeko
proiektuak aurrera
jarraitzen du,
protesta artean.** / 2



**Elikadura jasangarria
eta ekonomia
zirkularra uztartzeko
egitasmoa lantzen ari
dira Asparrenean.** / 4



**Artoa aletzeko Ajuria
makina martxan jarri
du Gloria Ruiz de
Luzuriagak Ilarduiako
gazteekin.** / 6



**1813an frantsesek
atzean utzitako
altxorak imajinazioa
eta espekulazioak
piztu ditu.** / 18



**Alejandro Salcedo:
"Niretzat,
gastronomia jana eta
edana baino zerbait
gehiago da"** / 21



Dorre meteorologikoa maiatzaren 6tik dago Iturrietako Mendietan. MENDIAK ASKE

Iturrietan, haize bolada nahasiak

Jaurlaritzak parke eoliko bat eraiki nahi du Iturrietako Mendietan, Araban aurreikusitako beste batzuen artean. Proiektuak oso hurbiletik joko du Lautada eta bertako biztanle zein faunak gertutik pairatuko du sorturiko inpaktua. Proiektuak aurrera darrai, protesta artean.

Amaia Gartzia AGURAIN

Proiektu bera berriz ere. Ezaguna da zonaldean duela hamaika urte pasatxo Iturrietako mendiak haizearen aitzakiapean industrializatzeko saiakera. Orduan bere horretan geratu zen proiektua, eta orduko Energia Berriztagarrien Lurralde Plana berritzeko asmotan. Ez zen makala izan egitasmo horrek jaso zuen oposizioa Mendiak Aske plataforma herritarraren bidez.

Hamaika urte geroago, jomuga bera: Iturrieta. Energia eolikoaren mamua jarraika dabilkie mendiei. Iberdrolak eta Eusko Jaurlaritzako Energiaren Euskal Erakundeak komunean duten Aixear enpresak eramango ditu aurrera lanak. Kudeaketa, ordea, ez da antolatua izan, oposizioaren ustetan. Aipatu planaren suspentsioak beste baten

beharra dakar edozein proiektu aztertu eta aurrera eraman dadin. Baldintza ezinbesteko hori ez dela eman salatu dute, eta non eta nola eraiki daitekeen jakin gabe bertako haize ufadak neurtzeko dorrea baimenik gabe eraiki dutela herritarren harri-dura eta kezkarako.

Dagoeneko 22.751 alegazio bildu ditu Mendiak Aske plataformak orotara Arkamu, Iturrieta eta Labrazako hiru proiektuen aurka; Azazetako proiektuaren aurkakoak biltzen ari dira oraindik; Aramaion (Arlaban) eta Gesaltza Añanan aurreikusita-

DAGOENKO 22.751 ALEGAZIO BILDU DITU MENDIAK ASKE PLATAFORMAK HIRU PROIEKTUEN AURKA

ko beste proiektuak, ordea, haize-neurketak egin ahal izateko izapidetze fasean daude. Kontra azaldu diren beste hainbat elkarte, talde zein alderdi politiko ezberdinek ere kontrako arrazoi bideak aurkeztu dituzte, hala nola, Podemosek eta EH Bilduk. Era berean, Arabako Mendizale Federazioak "irmoki" gaitzetsi du egitasmoa, eta gizarte eragileak ordezkatuak egongo diren lanketarako mahai osatu baten beharra plazaratu du.

Berriztagarriak bai, ez nolana

Kexa guztiak norabide berdinean doaz. Egungo eredu energetikotik jasangarriago batera aldatzeari egokia baderitzote ere, ondo diseinatutako eta ingurunea errespetatutako duen aldaketa bat izan behar duela adierazi dute, baita mendizale elkarteak ere: "Zer zentzu du energia be-

rriztagarrien alde egiteak ekosistemak suntsituz?".

Ildo beretik, EH Bilduk eta Podemosek babestutako lurretan eraikitzeak debekua azpimarratu dute. Podemosetik diotenez, "parke hauek ez dute Klima Aldaketa eta Trantsizio ekologikoaren lege onartu berriak dioena errespetatzen". Bi alderdiek Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorial baten hutsunea nabarmendu dute, eta bere egin dituzte era berean faunak eta florak jasoko lituzketen ondorio negatiboak. Bilduk, bere aldetik, Eusko Jaurlaritzaren "kudeaketa eskasa eta planifikazio gabezia" nabarmendu ditu.

Raul Lopez de Uralde Aguraingo EH Bilduko politikariaren hitzetan, "energia berriztagarriak behar ditugu, bai, baina lehendabizi behar dena lurralde plan bat da. Badirudi Araba esperimentu lurraldetzat hartu dutela, jende gutxiago garenz erresistentzia txikiagoa topatuko dutelakoan beharbada, baina deigarria da proiektu guztiak Araban kokatuak izatea". Ezinbestekoa den plan horren eskaera egiteko mozioa aurkeztuko dute egunotan Aguraingo Udalean.

Arabako Natur Institutua, kontra

Berdin mintzatu da Arabako Natur Institutua, eta haiek ere alegazioak aurkeztu dizkiote Arkamu eta Iturrietako eolikoei: "Faunaren, botanikaren eta paisaiaren aldetik duen aberastasun apartak justifikatzen du Europa mailako babes hori, eta hala jasotzen dute horrelako zonaldeen kudeaketa planek, zeintzuek zentral eolikoaren instalazioak baztertzeko dituzten horrelako guneen baitan". Elkartearen iritziz, "denak ez du balio" berriztagarrien aldeko ezarpenean.

Ernesto Sainz Aguraingo alkateak ALEAri egindako adierazpenetan esandakoari jarraiki, ordea, Energia Berriztagarrien inguruko Lurralde Plana 2002tik "indarrean" dago. Hala ere, indargabetua ez badago ere, 2008. urtetik darama Eusko Jaurlaritzak berriro beharrean gaurdaino. Jaurlaritzak berak iragarri

zuen lurralde plan honen gainbegiratzeara Eusko Legebiltzarrak horrela eskatu ostean, eta urte horietan jaso zituen zentral eolikoak eraikitzeak hainbat eskaerei luzapena ezarri zien. Hamaika urte geroago, badirudi bere horretan jarraitzen duela egoerak, baina enpresa ezberdinak mugitzen hasi dira, eta bazterrak aztoratzen. Plan horrek zehaztuko ditu etorkizunean eolikoak bezalako parkeak ezartzeko kokaleku egokiak. Ordura arte, oposizioaren ustez, ezin izango zaie onetsia eman Iturrieta bezalako kokapenei.

Udala, hiru haize-errotaren aurka

Aguraingo alkateak azaldu duenez, Iturrietan ezarri nahi dituzten hamabost haize sorgailuetatik hiruren kokapenaren aurka egin dute; zehazki, Aguraingo Udalaren konpetentzia diren lurraldeetan dauden hiru eolikoaren kontra agertu da Udala. Gainontzekoez itaunduta, nahiz eta babestutako zonalde berean kokatuta egon, udal taldeak haiei "ez dagokiela" erantzun du, eta eraginda izango diren udalen "erabakitzeak eskubidea" azpimarratu dute: "Gu, Aguraindik, gure interesak defendatzera mugatuko gara, ez dugu zertan tartean sartu eragindako gainerako udalerrien borondatean".

Haatik, Espainiako Trantsizio Ministerioak Aguraingo Udalari egitasmo honen berri eman zionean, haize errota horien eraikuntzatik sortu litezkeen eragin urbanistikoa zein ingurumenaren gaineko eragina jasoko zuten bi txostenen berri izan du ALEA, eta lehenengoan jasotzen dena oso bestelakoa da: Iturrietan ezarri nahi dituzten 15 aerosorgailuetatik, hiru Iturrietako Partzuergoan kokatzen dira, eta gainontzekoak Arraia-Maetzuko lurretan. Ostera, planteatutako 15 aerosorgailuetatik 11ren hegala Aguraingo udalerriko 610 onura publikoko mendian daude ere.

Bederatzi haize-sorgailuren plataformek, 7tik 15era zenbakitutakoek, 610 onura publikoko mendia osatzen dute, Aguraingo udal-mugartean. 14. eta 15. areo-generadoreak eta 13.-ren plataforma Iturrietako Partzuergoan daude. Proiektu honetako haize-sorgailuen kokalekua kontserbazio bereziko eremu bat da, natura-balio eta paisaia-ba-

15 HAIZE ERROTETATIK 11REN HEGALAK AGURAINGO ONURA PUBLIKOKO MENDIAN DAUDE

lio handikoa. Haize-sorgailuak edota horien plataformak Aguraingo lurzoru urbanizaezinean daude, D10 Kontserbazio Berezikiko Eremu gisa sailkatuta (...) Plan Orokorrean D10 babes bereziko eremurako ezartzen den erregulazioak eraikuntza-erregimenean zehazten duenez, basoak hobetzea eta kontserbatzea helburu duten erabilerak soilik onartu beharko dira. Era berean, eraikitzeak asmorik gabeko erabilera onargarri gisa ezartzen ditu: lurzoruan edo lurpean, zuhaitz-masetan eta fauna eta floran egiten diren ekintzak (...)

baina ezin dira lur mugimenduak edo erliebearen aldaketa esanguratsuak egin.

Hala, esandako txosten urbanisitikoak ondorioztatzen duenez, aukerarik egokiena parkea bere osotasunean beste eremu batera eramatea da, eta eremu horretan hirigintza- eta ingurumen-baldintzak eta -araudiak, bai eta horien babes-araubidea ere, mota horretako azpiegiturekin bateragarriak izatea. Horren alde azaldu da Aguraingo Udala, birkokatzearen alde.

Baina argi dago hiru haize errotek baino gehiagok hartzen

dituztela udalerriko lurraldeak. Gobernu taldeak, era berean, kezka adierazi du sai zuria, ugazta, sai arrea, miru gorria edota Bonelli arranoa bezalako espezie babestuengatik. Hauek jasango luketen arriskua ingurumen txostenean jasotzen da, bai eta Iturrietako akuifero batzuek jasan lezaketena.

Bi plan darabiltzate politikariek afera honen inguruan. Bata Arabako Energia Berriztagarrien Sustapen eta Garapen plana da (2010-2020), *Mugarri* izenekoa, berriztagarriak aurrera eramateko estrategiak biltzen dituena. Honek eolikoak bezalako energiaren ustiapena ezartzeko zonalde batzuk baztertzen ditu daukaten berezitasunagatik, Iturrieta esaterako. Bigarrena, lurralde plana, arestian aipaturikoa, 2008tik berri beharrekoa da. Berau gabe ezinezkoa da lanik hastea. Egitasmo honek berak ere eolikoek Iturrieta eta Arkamuko zonaldeak erasango zituela jasotzen zuen, hain zuzen ere, 100 puntuko eskala batean 73ko balioan jaso zuen inpaktua.

Zentral eoliko hauen proiektuak ingurumen kalitate handiko mendizerretan kokatuak daude. Arkamu eta Iturrieta, esaterako, Kontserbazio Berezikiko Zonalde bezala daude izendatuak, eta Natura 2000 Europako Sare Ekologikoaren parte dira. Iturrietako eolikoak Lautada, Arraia-Maeztu eta Iru-raiz-Gaunako udalerriak eragingo lituzke. Arraia-Maeztuk aurka bozkatu zuen Mendiak Aske plataformak aurkeztutako mozioari, eta proiektuaren alde agertu; Iru-raiz-Gauna, aitzitik, lehen unetik aurka agertu da.

Espainiako Trantsizio Ekologikoaren eta Erronka Demografikoaren Ministerioak onartu zituen proiektu hauen izapideak. Arabako Aldizkari Ofizialean proiektuak jaso eta publiko egin ostean, alegazioen txanda heldu zen. Berriztagarrien lurralde plana berri zain, erantzuna aipatu ministerioak emango du.

Iturrietako zentralak 75 MWko indarra izango luke eta Arraia-Maeztu, Agurain, Iru-raiz-Gauna eta Entziako Parkezuergoa hartuko lituzke. 200 metroko 15 haize errota eraikiko lituzkete, Gereñu inguruan 30/220 KW-ko azpiestazio eraldatzailea, eta bertatik Elgeako azpiestazio-ra joango litzatekeen goi tentsioko aireko linea.

MASAJES



AGURAIN (ARABA) 696 007 062 Naturopata znb: 4092

LAURA

Laura López-Quintana
Gorputz erlaxatua - gorputz osasuntsua

- **Kiromasajea**
[Quiromasaje]
- **Drainatze linfatikoa**
[Drenaje linfático]
- **Masaje lasaigarri eta deskontrakturatzailea**
[Masaje relajante y descontracturante]



Ehunka pertsona bildu ziren Agurainen maiatzaren 22an. NAGORE LIZUNDIA



Agurain, Arraia-Maeztu, Iru-raiz-Gauna eta Entzian du eragina planak. NAGORE LIZUNDIA



'Mendiak ez daude salgai' lelopean egin zuten protesta. NAGORE LIZUNDIA



orekan
fisioterapia

IXONE
FISIOTERAPEUTA Col. 1897
680 336 191
ixone@orekanfisioterapia.com

Beniatxo kalea, 2 - Behekoa
01200 Agurain, Araba.

Uztaila-Abuztua
Zaindu zure
bizkaria
Ikastaro
mamafit



AUTOSPA SENDOA
AGURAIN

IBILGAILUAK ESKUZ GARBITZEKO ETA
DESINFECTATZEKO TAILERRA

 **623 039 640** 

Urzabal kalea 7 (San Martin auzoa)
AGURAIN

KOTXEA JASO ETA ITZULTZEKO ZERBITZUA
LAUTADA OSOTIK



ORTZI
TABERNA
ETXEO
GOSARIAK



GARAGARDO ARTISAU

ZAPATARI KALEA Nº 19 / 01200 AGURAIN, ARABA / EUSKAL HERRIA / TEL.: 640 18 67 30

 ORTZITABERNAAGURAIN  ORTZITABERNAAGURAIN



Eragile desberdinek egin dute bat elikadura eta jasangarritasuna ardatz dituen ekimenarekin. CRISTINA GIL RUIZ

Lehendabiziko hazia erein dute

Asparreneko adinekoen zentroko eta etxebizitza komunitarioko jantokian elikadura, jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra uztartzeko helburua duen egitasmoa abiatu dute. Bestelako alternatibak ere badaudela erakutsi nahi dute.

Naiara Lopez de Uralde ASPARRENA

Lautada Landa Garapenerako Elkartek, Asparreneko Udalak eta Asparreneko adinekoen zentroko eta etxebizitza komunitarioko jantokia kudeatzeko arduradunak euren indarrak batu dituzte *Kontzientziadun hornikuntza eta elikadura jasangarri-rantz* izeneko proiektua martxan jartzeko. Egitasmo honek jantokiaren eguneroko bizitza eta kudeaketa modu integralean landuko ditu, eta bere helburu nagusiak, besteak beste, janlekuan bertako produktu gehiago sartzea, produktu horien ekoizpena gero eta jasangarriagoa izatea, edota erosketa publikoen lizitazioetan elikagaien jasangarritasunaren inguruan ezarri daitezkeen adierazleak sortzea bilatzen du.

Proiektu hau Lautada Landa Garapeneratik sortutako kezka batetik jaio zen. "Jantoki publikoetan erabiltzen diren elikagaien jatorria eta erosteko modua iker-tu nahi zuten, eta azkenean As-

parrenean aurrera eramatea erabaki zuten jantokiaren tamainagatik, udal-titulartasuneko izateagatik eta bertako ardura-dunak adierazitako prestutasunagatik", azaldu du Txelo Auzmendi Asparreneko alkateak.

Urte hasieratik daramate datuak eta hasierako sentsazioak biltzen, izan ere bukatzeaz dagoen lehenengo fase honen jomuga jantokiko sukaldearen lan egiteko eran eta Lautadako ekoizleetan jarri dute. "Alde batetik, prestatzen dituzten menuak aztertutitugu, zein produktu, horiek non erosten diren edota erosketetan zenbat gastatzen den kontuan hartuz. Eta, bestetik, Lautadako ekoizleekin harremanetan jarri gara proiektu honetan

**SUKALDEKO LAN
EGITEKO ERA ETA
INGURUKO EKOIZLEAK
AZTERTU DITUZTE
LEHEN FASEAN**

parte hartzeko interesa duten jakiteko", nabarmendu du Cristina Gilek, proiektuaren koordinatzaileak.

Lautada mailan oro har dagoen ekoizteko moduagatik "oso zaila" izango da lehengai horiek ekimenean barneratzea. Hala ere, Gilen ustetan, nekazariak proiektu honen berri izatea oso garrantzitsua da, poliki-poliki ekologikoago den ekoizpenerantz pausuak emateko eta beste motatako alternatibak martxan jartzea posiblea dela ikusteko. "Interesa agertu dutenen ekoizleen fitxa sortuko dugu, bertan bakoitzak eskaini dezakeen produktuak zerrendatzeko; ez soilik proiektu honetan erabiltzeko, baizik eta inguruko beste jantoki, jatetxe edota dendak ere haiekin harremanetan jarri ahal izateko", argitu du koordinatzaileak.

Erosketak herrian

Jose Manuel Manzanos Txiki sukaldaria ez ezik, jantokian prestatzen diren jakiak erostea-

ren arduraduna ere bada. Proiektuarekin hasi aurretik produktu gehienak inguruko ekoizleei erosten zizkien, Araiako saltokietan edota azoka egunean herri-raino gerturatzen diren saltzaileei, eta aurrerantzean ere bertako denda eta ekoizle txikien alde egiten jarraituko du. "Janaria prestatzerakoan nutrizio-balioak betetzen ari nintzen edo ez asko kezkatzen ninduen, eta horregatik proiektuan nutrizionista batek ere parte hartuko du, erabiltzaileen behar nutrizionalak osatzen dituzten menuak iradokitzeko", argitu du Txikik.

Hala, talde sustatzailea Udaleko ordezkariak, Lautada Landa Garapenerako teknikariak, proiektuaren koordinatzaileak eta jantokiko sukaldariak ez ezik, nutrizionista batek ere inguruko bi ekoizle ere osatzen dute. "Taldea handia eta anitza gara, eta bakoitza gure eginkizunekin oso lanpetuta bagaude ere, proiektuaren nondik norakoak aztertzekeo tartetxoren bat ateratzen dugu beti, eta hori oso positiboa da", dio Gilek.

Era berean, jantokiko hondakinen kudeaketa aztertzen ari dira, eta baita "zero" hondakinei buruzko egoera ere. "Aurretik zenbat pertsona bazkaltzera etorriko den jakiten dugunez, normalean ez da janari asko sobera egoten, eta hondakin organikoa- rekin konposta egiten da. Beraz, arlo horretatik ez dugu kezkarik. Plastikozko ontziekin, ordea,

arazo bat dagoela antzeman dugu, eta horregatik irtenbideak bilatu nahian gabiltza", aitortu du sukaldariak. "Jantokian, adibidez, yogur asko kontsumitzen da, eta botiletan datozenak erostea edota Bulgariako yogurta egitea pentsatzen ari gara".

Jantokian, etxean bezala

Jantokiak 20-24 erabiltzaile inguru izan ohi ditu, eta egunero bertan "etxean egongo balira bezala" bazkaltzen dute. "Pandemia ostean pertsona nagusien zainketari buruz asko hitz egin da, eta gure ustez elikadura eta nutrizioaren gaia ere zainketa horren ardatz nagusietariko bat da. Hala eta guztiz ere, tamalez, administrazioak ez dio arlo honi erreparatzen gehienetan diru kontuak besterik ez baitituzte aintzat hartzen", esan du Auzmendi. "Gu zorioneakoak gara Txiki gurekin izateagatik, jaki gozoak prestatzeaz gain, jasangarritasunagatik eta erabiltzaileen ongizateagatik duen ardur nabarmena baita".

Baina ekimen honen funtsa ez da bakarrik erabiltzaileak ongi elikatzea, horiek ere proiektuan parte hartzea ere bilatzen da. Horiek ere egitasmoa eza-gutu eta konpromisoa izatea. "Horretarako, informazioa eman ez ezik, tailer desberdinak ere antolatuko ditugu beraiek ere egitasmo honen inguruan edota elikadura jasangarriaren garrantziaz jabetu daitezen", argi-

2 URTETIK 16 URTE ARTE
www.lautadaikastola.eus
Tlf: 945 300 215
(Agurain)
ikastolenelkarte

tu du Gilek. "Gainera, *Bazkal-
tzera gonbidatzen zaituztegu*
izena duen jardunaldiaren bidez,
sukaldaritzako jakintzak truka-
tzeko eta adinekoen bi zentro-
tako erabiltzaileen artean otor-
duak partekatzeak aukera ere
izango dute", gaineratu du Auz-
mendik.

Hori ez da antolatuko den ekin-
tza bakarra. Proiektua borobil-
tze aldera, interesa izan deza-
keten herritar eta erakunde
guztiei irekita dauden hainbat
hitzaldi eta tailer ere antolatu-
ko dituzte sustatzaileek: adine-
koen elikaduran oinarritutako
nutrizioari eta iraunkortasuna-
ri buruzko ikastaroa; garbiketa
ekologikoaren inguruko tailerra
etxebizitzaren iraunkortasunaren
ikuspegi integrala jorrazteko;
edota erosketa publikoa elika-
gaien jasagarritasun-irizpideak
landuko dituen jardunaldi bat
ere izango da. "Ekintza guzti
hauekin sentsibilizazioa bilatu
ez ezik, bestelako alternatiba
posibleak ere badaudela ezagu-
tarazi nahi dugu eskualdeko
bizilagunen artean", gogoratu
du alkateak.

Carasso Fundazioa

Ekimen honek Daniel eta Nina
Carasso Fundazioaren laguntza
dauka. Fundazioak hamar urte
baino gehiago daramatza elika-
dura jasagarriaren esparruan
aldaketarako eragile izan dai-
tezkeen proiektuak bultzatzen,
eta erdietsitako guztia publiko



Txiki sukaldaria arduratzen da janariak erosi eta prestatzeaz. CRISTINA GIL RUIZ

orokorrari komunikatzen. "Fun-
daziotik diru-laguntza jaso ez
ezik, arlo honetan esperientzia
handia duen lantalde bat gure
bidelaguna izaten ari da fase
guztietan zehar. Gainera, antze-
ko proiektuak antolatu dituzten
beste eragileekin harreman zu-
zena edukitzea ahalbidetzen
digu, eta alde horretatik ere
asko ikasten ari gara", nabar-
mendu du Gilek. Fundazioaren
babesarekin, bestelako alterna-
tibak izan dituzte mahai gainean,
egokiena osatzen joateko.

Urte amaieran egitasmoaren
nondik norakoak eta bertatik
sortutako materialak aurkezte-
ko jardunaldi bat egitea aurrei-
kusi dute. "Bertan, besteak bes-

te, Lautadako ekoizleen zerren-
da aurkeztuko dugu, eta etxeen
garbiketa ekologikoaren ingu-
ruan sortutako gida ere paperean
banatuko dugu", azaldu du koor-
dinatzaileak.

Sustatzaileak baikorrak dira
honek guztiak eskualdean izan
dezakeen eragin positiboan pen-
tsatzean, eta, etorkizunean egi-
tasmoa beste jantoki batzuetan
martxan jartzeko abagunea ego-
tekotan, sustatzaileei Asparre-
nekoa erreferentea bilakatzea
gustatuko litzaieke. "Orain gu
hazi desberdin asko ereiten ari
gara, eta gerora hazi horietako
bakoitzetik aldaketa jasanga-
rriago bat ernatuko delakoan
gaude".



Urte amaieran aurkeztuko dute Lautadako ekoizleen zerrenda. CRISTINA GIL RUIZ



Egunero hogeit bat erabiltzaile ditu jantokiak. CRISTINA RUIZ GIL



Zaindu gertukoa

Nekazaritzaren memoria aletzen

Ilarduiako Gloria Ruiz de Luzuriagaren etxean artoaren aleak garbitzeko Ajuriako makina martxan jarri dute berriz. 60 urtez lanak arindu zituen aparatuaren funtzionamendua erakutsi die emakumeak gazteei.



Gloria Ruiz de Luzuriagak gazteekin batera eragin dio makinari. ARITZ MARTINEZ DE LUNA

Estitxu Ugarte Lz. de Arkaute ILARDUIA Lautadako altxor preziatuen artean daude nekazariaren makineriak, gaurkoak eta lehengoak. Baserrri askotan aire girotua eta usb-kargagailua duten *John Deere* traktore modernoak espazioa partekatzen du Ajuriako makina zaharrarekin. Ilarduiako Gloria

Ruiz de Luzuriagaren etxean, esate baterako, urte luzez gorde dute artoa aletzeko makina. Orain dela bi urte makina biltegitik atera zuten, eta garbitzen, txukuntzen eta margotzen ibili da emakumea. "Ez dugu konponketa handirik egin behar izan, oraindik ondo dago makina".

Egun hauetan familiako gazteek aukera izan dute aletzeko makina martxan ikusteko eta amonarekin batera lehengo lana nola egiten zuten ikasteko eta probatzeko. Artaburuak zutik sartzeko esan die gazteei Ruiz de Luzuriagak, bestela ez direlako ondo garbituko. Amonaren

aginduz, batek gurpilari eragiten dion bitartean beste batek artaburua jasotzen du; arto-aleak garbitu gabe geratzen baldin badira, eskuz kentzen ditu hirugarrenak. Hogei minuturen ostean, anega erdia hartzen duen kutxa hiru aldiz bete dute gazteek, eta zakuan gorde dituzte arto-aleak.

Hirurogei urtez jarraian

Lanean ari diren bitartean, etxe-ko atarian hartu du Ruiz de Luzuriagak ALEA, eta makinaren ondoan azaldu du Ajuriako harribitxiak baserriko egunerokoan izan duen garrantzia. "Asko erabili dugu makina hau. Hemen, lehen, artoa asko ereiten genuen, ganadu asko zegoelako; etxeetako ukuiluak beteta zeuden, eta artoa animaliak elikatzeko erabiltzen genuen batik bat. Horregatik erosi genuen makina hau". Ordurarte eskuz aletu behar zituzten artaburuak, banan-banan, burdin bat erabiliz. "Oso lan gogorra zen", esan du emakumeak.

Hirurogeita bost urtez erabili zuten artoa garbitzeko makina Ilarduiako Ruiz de Luzuriagaren baserrian. "Garai hartan -gogoratu du- aletzeko makina izatea gaurko uzta biltzeko makina izatea bezala zen; aletzeko makina zuena zorionekoa zen, kar, kar, kar". Gasteizen erosi zuten, Araiaiko Ajuria fabrikari ez zutelako horrelakorik egiten; "Araian gehiago patatak ereiteko, aukeratzeko eta ateratzeko makinak egiten zituzten".

Artoaren gainbehera

Mota horretako oso makina gutxi zeuden Lautadan, beraz libre zegoenean denek eskatzen zioten Ilarduiako familiari artoaren lanak arintzeko. "Agurainen bazegoen beste makina bat, eta Ilarduian azken momentuan ere beste batek erosi zuen. Gogoratzen dut makinaren funtzionamendua erakusteko herriz herri eramaten genuela, baina gaizki tratatzen zuten, eta apurtzen zen; orduan erabaki genuen etxean uztea eta etxean bakarrik erabiltzea".

Momentu batean, makinari motore bat jarri nahi izan zion andreak, elektrikoa izateko, baina artoaren gainbehera etorri zen eta asmoa bertan behera utzi zuen azkenean. "Artoa oso gutxi ereiten da inguruan, ez dagoelako ganadurik. Lehen,

ARTOA GUTXI EREITEN DA GAUR EGUN LAUTADAN, OSO GANADU GUTXI DAGOELAKO

GLORIA RUIZ DE LUZURIAGAK ARTOA ALETZEKO AJURIA MAKINA MARTXAN JARRI DU BERRIRO

ANEGA ERDIA HARTZEN DUEN KUTXA HIRU ALDIZ BETE DUTE GAZTEEK HOGEI MINUTUAN

ukuilu handia genuen etxean, txerriak eta oiloekin; idiak ere bagenituen, a zer lana ematen zuten!", gogoratu du. Orain, berriz, baratza batean arto-ilara batzuk ereiten dituzte, oiloei emateko, eta gazteentzat krispetak egiteko.


Halere, artoa aletzeko makina berreskuratzea ez da Ruiz de Luzuriagaren baserrian dagoen asmo bakarra. Raul Lopez de Munain semea sokak egiteko aitzak erabiltzen zuen "traman-kulua" berriro martxan jartzeko lanean dabil. Gainera, txilarrezko erratzak ere egiten hasi da, eta beste hainbat proiektu ditu lehengo nekazaritza bizimoduarekin lotuta.



Ikusi bideoa
alea.eus
webgunean



Artaburuak aletu dituzte makina zaharrarekin Ilarduiako Gloria Ruiz de Luzuriagaren etxean. ARITZ MARTINEZ DE LUNA





TELEGRAM
Batu zaitez: t.me/ArabakoALEA



WHATSAPP
Bidali mezu bat: 645 66 86 02

Azken berriak euskaraz jaso nahi dituzu?
ZERBAITEN BERRI EMAN NAHI DIGUZU?



Saez de Asteasu
ARDOAK ETA EDARIAK
VINOS Y BEBIDAS

liburudenda **Libreria Euzki**

Eskola materiala • Fotokopiak •
Jostailu didaktikoak • Eskulanak •
Opariak • Liburuak

C/ San Martin 8
01200 Agurain
945 30 01 95
arantzaylola@gmail.com



AGURAINGO HERRIKO TABERNA

astebururo PINTXO eta RAZIOAK



Lautadako AEK

HABEk homologatutako euskaltegia

Zapatari 31, Agurain
945 300 408 / 651 109 198
lautada@aek.eus

Araba, nekazaritzan aitzindaria

Nekazaritzaren modernizazioa inguruko herrialdeetan baino askoz lehenago eman zen Araban, eta Araiako Ajuria fabrikak zerikusi handia izan zuen horretan. Jaio zenetik, 1914. urtean, helburu argia izan zuen Ajuria y Aranzabal S.A. konpainiak: "Sozietate honen xede berezia mota guztietako lanabesak, nekazaritzako makinak eta antzeko artikulua fabrikatzea, saltzea eta erostea izango da". Berehala, Espainiako zenbait herrialdetan sukurtsalak zabaldu zituen Ajuriak: Kordoba, Burgos, Merida, Salamanca... eta bertako nekazarien sindikatuekin ere harreman estuak lortu zituen, erosleak lortze aldera. Espainiako Gerra, gainera, oso onuragarria izan zen fabrikarentzat; izan ere, Serafin Ajuria, haren sortzaile eta arima nagusia, Arabako Diputazioaren "kudeatzaile" izendatu zuten. Gerraren amaieraren ondoren, eta autarkia-aldiarekin batera, Ajuriak jabeak bere harremanak eta ekipamenduan egindako inbertsioak baliatu zituen puntako faktoria sendotzeko. 1950eko hamarkadaren hasieran, nekazaritza eta basogintzako makineria gehien ekoizten zuen probintzia bilakatu zen Araba. Ajuriak gain, sektore berean



Ajuria fabrikaren irudi bat, Gasteizko La Metalurgian. AJURIA FAMILIA

beste hiru fabrika ere zeuden: Aranzabal, S.L., ereiteko makinak egiten zituena eta Gamarra, S.L. eta Gomez de Segura lantegiak, Brabant goldeen ekoizpenean espezializatuak. Alta, zalantzarik gabe, Arabako industriar konpainia garrantzitsuena Araiako Ajuriak izaten jarraitu zuen urte luzez.

Garaiko egunkarietan irakurri daitekeenez, "nekazaritzako makineria eraikitzea da probintzia honetako industria nagusia, eta Ajuria, S.A. enpresak duen garrantziagatik nabarmentzen da, 20 milloi

pezetako kapitalarekin. Goldeak, harmailak, laborariak, sega-makinak, trillagailuak, haizagailuak eta hainbat aparatu egiten ditu; guztira, 4.260 langile ditu. Nabarmentzekoa da fabrika honek herrialdean egin duen lana, nekazaritzako makineriaren erabilera orokortzea lortu baitu landa-eremu osoan, eta, hala, Araba da Espainia osoan nekazaritzako makina gehien duen herrialdea. Esate baterako, 1930etik 1943ra, 12.062 nekazaritza makina saldu ziren probintzia osoan".



OSKAR GARCIA DE BIKUÑA
EUSKARA TEKNIKARIA

Harrobia sortzen

Lautadan hockey talde bat existitzen dela entzunez gero, baten bat txundituta geldituko litzateke. Are gehiago, beharbada, bertan euskara arruntasun osoz bizi dela esango banio. Hockeya Euskal Herrian? Euskara kirolean, eta zonalde "erdaldun" batean? Nola liteke, baina?

Bada, halaxe da. Harro sentitzeko moduko klub bat lortu dugu azken urteotan, non jokalaria guztiok (izan senior, amateur edo kategoria txikietakoak) euskaraz ulertzen dugun. Era honetan, Euskal Herriko beste edozein txokotan nekez lor genezakeena egin dugu posible: euskaraz entrenatzea eta jokatzeko. Jakina, honetan ez dago milagrorik, eta gurean eusle zein hartzaile direnak ditugu, betiere norbere gaitasunak aintzat hartuta eta errespetatuta.

Izan ere, kirol gutxitu honetan dihardugunok ederki asko dakigu zein zaila den euskararentzako arnaguneak topatzea, hockey munduan sobera ikurrin eta euskarazko hitz urri daude eta. Eta azken horri, hain justu,

GURE GOLAK, GARAIPENAK, PORROTAK... EUSKARAZ BIZI NAHI DITUGU

eman nahi diogu buelta. Etxetik hasita, euskal hockey-a eraldatzearekin amesten dugu. Gure golak, garaipenak, porrotak... euskaraz bizi nahi ditugu, eta besteak ere gu bezala egitera animatu nahiko genituzke. Jakin badakigu, esperientziak halaxe erakutsi baitigu, gu euskaraz entzuteak beste zenbait ere animatu dituela gure denon hizkuntza gehiago erabiltzera.

Eta, oso gutxinaka bada ere, euskal hockeya euskaldunduz doala ematen du.

Ekainaren 13an Lautadako Muskerrak taldeak jokatu genuen Euskadi kopako bi final: senior eta amateur kategorietakoak, hain zuzen. Bertan, partiduak amaitutakoan, mugarri izan litekeen urratsetako bat egin zen, non gure delegatuak Euskal Federazioaren izenean irakurri beharreko elebarrereko testu bat hartu, ekimen propioz euskaratu, eta elebitan ozen irakurri baitzuen.

Aldaketak ez dira egun batetik bestera ematen, baina honelakoak dira gure gizartea, euskal hockeya den bezalako esparru txiki batetik, eraldatu dezaketenak. Euskaraz entrenatzeko hautua hartzen duen klub bat, komunikatu ofizial bat lehendabizikoz elebitan irakurtzea erabakitzen duen norbanako bat... Lorpen txikiak, baina inolaz ere makalak.

Hau da, bada, gure kirol klub apalean bizitako esperientzia, baina dudarik ez daukat beste zenbait talde ere identifikatuta sentituko direla honekin. Horiei, zein euskararen aldeko urratsak egiten hasiak diren orori, mezu sinple bat bota nahiko nieke: eutsi goiari! Elkarrekin, euskal kirolarien harrobia sortuko dugu. ■



LURDES LEKUONA
ZALDUONDOKO KULTUR ELKARTEKO KIDEA

Garbategietako isilekoak

Orain dela egun batzuk Zalduondoko Udala eta herriko kultur elkarteak herriko garbitokia, garbategia edo latsarria azkenengoz erabili izan zuten emakumeei omenaldia egin zieten. Ekitaldia antolatzearen zergatia: garbategiak gure ondare arkitektonikoa dira. Honek esan nahi du zaindu, mantendu eta eraberritu behar ditugula gure herriko historia eta memoria zati bat direlako.

Herri gehienetan XIX. mende hasieran eraiki ziren garbitokiak, eta premiazko elementu bihurtu ziren, zerbitzu publikoa ematen baitzieten herritarrei. Belauniko lan egiteki aurrerapausoa eman bazuten ere, arropa garbitzearen lanak oso lan fisiko nekosoak izaten jarraitzen zuten: prozesu luzea, zama handiak garraiatu eta altxatzearena, etengabeko hotza eta hezetasuna...

XX. mendean, ur-korrontea etxeetara iristean, garbategiak erabiltzeari utzi genien, gehienok. Ondorioz, desagertu egin dira herri askotan. Zalduondon, baina, mantendu egiten dugu, nahiz eta jada ez den garbitzeko erabiltzen, biltzeko leku gisa erabiltzen baita, gazteena batez ere.

GARBITOKIAK HERRIEN BIZITZAREN, GARAPENAREN ETA BILAKAERAREN LEKUKO ZIREN

Ondare arkitektonikoa ez ezik, giza ondarea ere nabarmendu nahi dugu. Bereiki emakumeen lantokiak ziren garbitokiak, gaixotasunei aurre egiteko higienezkoak zuten garrantziaren jakitun zirelako lixiba-lanak berebiziko ataza bihurtu ziren. Eta, beste behin ere, zainketa lana, emakumeen bizkarrera erori zen.

Garbategikoa premiazko lana izan arren, gizarteak bigarren mailako lan moduan ikusi izan du beti, ekoizpen lana ez izateagatik. Hala ere, irudika dezagun une batez zein lan fisiko gogorra izan behar zuten negu hotzean.

Garbitlekuek funtzio sozial garrantzitsua betetzen zuten. Lixibarako tokia izateaz gain, harreman guneak ziren. Bertan emakumezkoak baino ez ziren biltzen. Garbitu bitartean, kultura transmisioa ere egiten zuten, esaerak esaten zituzten, elezaharrak kontatzen, kantatzen, barre egiten, baina batez ere, hitz egiten zen, eta norbere kezka, arazo eta gogoetak partekatzen zituzten, lanik gogorrenak ere partekatu bitartean. Zalduondoko emakumeek esaten dutenez "Garbitokian esaten zena, garbitokian geratzen zen". Garbitokian ez zegoen gizonik.

Toki hauen erabiltzaileak andrazkoak baino ez izateak, moral matxistaren kritikak eta mespretxuak eragiten zituen.

Garbitokiak herrien bizitzaren, garapenaren eta bilakaeraren lekuko ziren.

Hamaika aldiz pasatu naiz bertatik, Zalduondoko garbitokitik, beti garbitokia besterik ez nuen ikusten; orain, berriz, ondarea, sororitatea eta elkargunea ikusten dut. ■

Araia


Elizalde Kalea 1

Telf: 620653106

Ander Karasatorre



CARNICERÍA • HARATEGIA • CHARCUTERÍA • URDAITEGIA



ON
LINE
MAILE-
GUA
AIRE
ZABA-
LEAN

ITN: %4,99
UTB*: %5,11

ITN: %5,99
UTB*: %6,16

ZENBATEKORAREN ARABERA HAINBAT INTERES
TASA GAUDIENTE GERO, UTU ALDATU SOSTEN DA
ESKANTZAT BALIATZEKO, BEZERRAK AUZER
ONARTUTAKO MAILEGAREN ONURADUN GISA
SAILKATU ETA EGON BEHAR DU ETA MAILEGUA
2021/09/20 BAINO LEHEN FORMATZATU EDUKI
ONLINE EGITA DAIETKEKE GEHIENEO
ZENBATEKOA: 40.000€ EPEAK 3 ETXEA HILABETE
ARTEN; MAILEGUA EMATEN DUEI
FINANTZA-ERAKUNDEAK ONARTU ETA ALDEKI
AZTERKETA EGON BEHAR DU, ESKANTZAT HAU
KONTSUMORA ZUZENDUTA DAGO ETA, BEZAK
KONTSUMORAGAI ZU OIREN ESKAKERAK ETA
BEHARRIANTZAKETAK KAMPAINA GERTATZEN DIRA





Aguraingo Literatura Txokoaren kideak Katixa Agirrerekin egin zuten saioan. A.A.

"Liburuek uzten dituzten emozioez aritzen gara"

AINHOA ARBAIZA AGURAINGO LITERATURA TXOKOAREN DINAMIZATZAILEA

Arabako irakurle talde aitzindarietakoa da Aguraingoa. Hamaika urteko ibilbidea egin dute, eta 60tik gora liburu aztertu dituzte. Ahoan bilorik gabe hitz egiten dute.

Estitxu Ugarte Lz. de Arkaute

AGURAIN

Aurten ospatu ahal izan du azkenik Aguraingo Literatura Txokoak bere 11. urtemuga, iaz pandemiagatik bertan behera uztera behartuta egon baitziren hamar urteurrenaren ospakizuna. Taldearen ibilbideaz hitz egin du ALEArekin koordinatzaile lanak egiten dituen Ainhoa Arbaizak.

Modu berezian ospatu duzue taldearen hamaika urteko ibilbidea?

Berez, iaz betetzen genituen hamar urte, eta ekitalditxo bat antolatu genuen, baina beste baterako uztera behartuta egon

ginen. Aurten, zorionez, izan dugu berreskuratzeko aukera. Gotzon Barandiaran eta Rafa Ruedarekin bildu ginen aurreko astean eta saio berezia eskaini ziguten, *Hitzen ahairea*. Nolabait ere literaturaren mundutik musikara egon den jauzia jasotzen dute horretan, eta guk aurreko hamar urteko ibilbidean irakurritako liburuak oinarri hartuta ea saio bat presatuko zuten proposatu genien. Liburu batzuk eta egile batzuk aukeratu zituzten, eta oso saio polita izan zen.

Arabako irakurle txokorik zaharretariko bat izango zarete?



Ainhoa Arbaiza dinamizatzailea. A.A.

Badakit Gasteizen badagoela bat, maila itzela izan behar duena, Iban Zalduak zuzentzen baitu. Gurea etxekoagoa da.

Etxekoagoa?

Hasiera batean gela batean elkartzen ginen, baina azkenean erabaki genuen tabernan elkartzea, eta zerbeza baten bueltan aritzen gara. Liburuek gudan uzten dituzten emozioak eta sentimenduak partekatzen ditugu, batik bat, eta gure hausnarketak gehien bat alde horretatik joaten dira. Baina, lehenik eta behin, liburuak gustatu zaigun edo ez zaigun gustatu azaltzen dugu, zuzenean. Gure artean konfidantza handia dago hitz egiteko.

Nola sortu zen taldea; aurretik elkar ezagutzen zenuten?

Batzuk bai. Agurain ez da oso handia, eta euskalgintzan ibiltzen baldin bazara... Euskara elkarteak sortu zen, eta hasierako jarduerak batzuen artean liburuaren inguruan elkartzea proposatu zuten. Horrela hasi ginen elkartzen. Garai batean Araiaakoak ere etortzen ziren, baina AEK euskaltegiak aurten irakurle talde txiki bat sortu du bertan. Dena den, idazleak gonbidatzen ditugunean etortzen dira hona.

Irakurle amorratuak zarete?

Ez bereziki. Badago baten bat asko irakurtzen duena, batez ere erretiratu zenetik. Ni orain oporretan saiatuko naiz egunean zehar irakurtzen, bestela gauez irakurri behar izaten dut. Gustatzen zaigu irakurtzea.

Talde egonkorra zarete?

Bai. Egon dira joan-etorri batzuk, eta batzutan jende berria hurbiltzen da, baina talde egonkor bat sortu da; gure artean oso ezberdinak gara, baina oso pozik gaude.

Nola aukeratzen dituzue irakurri behar dituzuen liburuak?

Boteprontoan. Nik urte batean proposatu nien ikasturte osorako zerrenda bat egiteko, baina emozioekin asko jolasten dugu, eta batzutan gertatzen zaigu liburu mardul baten ondoren zerbait freskoagoa behar dugula, horregatik nahiago dugu liburuak momentuan bertan aukeratzea.

Nolakoak dira zuen topaketak liburuaren inguruan?

Niri "dinamizatzailea" ezizena jarri didate, eta normalean gidoitxo txiki bat eramaten dut taldean tira egiteko. Normalean ez dut erabiltzen gauzak berez ateratzen direlako: pertsonaiei buruz, idazlearen inguruko biografiari buruz... Batzutan orden txiki bat eramatearren daramat bakarrik, erraztearren. Lehenengo erronda beti izaten da: zer inpresio daukagu? Hortik hasten gara. Eta gero sakontzen hasten gara, pertsonaiekin beste batzutan sakonean dauden gaiak jaso eta gaur egunera ekartzen ditugu.

Zenbat liburu aztertu dituzue hamaika urte hauetan?

Guztira, 62 liburu izan dira.

Gogoratzen dituzu lehen eta azken liburuak?

Ba kasualidadez Uxue Alberdiren bi liburu izan dira. Lehena *Aulki jokoa* eta azkena *Denda ostekoak*.

Idazleen bisitak ere jaso dituzue, ezta?

Uxue Alberdirena izan genuen, Katixa Agirre, Kirmen Uribe, Patxi Zubizarreta, Karmele Jaio. Eta aparteko saioak ere egin ditugu; Garbiñe Ubedarekin egin genuena oso berezia izan zen, bere nebak etorri zirelako, Bide Ertzean taldekoak, musikarekin laguntzera.



Komiki batera eraman dute Txagoitiko errotaria

Añuako Administrazio Batzarrak eta Burguko Udalak komiki bat prestatu dute Txagoitiko errotariaren istorioa jasotzeko. San Joan egunaren bueltan txikiei eta ez hain txiki direnei zuzendutako ekitaldi batekin lotu dute komikia.



Ruben Bravok prestatu du komikia. AÑUAKO ADMINISTRATZIO BATZARRA



2019an egin zuten azken antzezpena. AÑUAKO ADMINISTRATZIO BATZARRA

Juanma Gallego BURGU

Denbora asko igaro da Txagoitiko errotak azken lanak egin zituenetik, baina, Añuako Administrazio Batzarreko presidentek Ruben Bravoren arabera, errotak "inoiz baino bizitza gehiago du orain". Izan ere, eraikin horren inguruan jasota zegoen abesti batean abiatuta, antzezpen bat prestatu dute, herriko txikienei bideratua, euskal mitologia ezagutu eta gozatu dezaten.

Aurtengo osasun egoera bereziak ekimena beste modu batera egitera eraman ditu antolatzailleak, eta, horregatik, Txagoitiko errotariaren istorioa komiki batean biltzeko ideia izan dute. Zazpi orriko komiki laburra da, eta, momentuz, 150 ale egin dituzte, San Joan egunaren bueltan banatzekoak.

Bravok aitortu du etorkizunean komikia gehiago hedatzeko eta euskaraz ere eskuragarri eskai-

ni ahal izateko ideia buruan duela, baina, momentuz, umee-kin egin ohi duten ekitaldi xume bati begira haren kabuz prestatutako komikia baino ez da. Norber Fuente ilustratzailearen laguntza izan du pegatinak egiteko, eta Gladys Martinezen kolaborazioa ere izan du.

Pegatinak, bai. Izan ere, umee-kin zinez maite dituzte pegatinak, galtzagorri jantzita daudenean ere. Ekitaldiaren muina horretara bideratu dute. Errotaria, Tartalo eta Mari agertzen diren eranskailuak komikian itsasteko modukoak dira.

Errotari galduta

Hitz gutxitan, istorioak dio errotariaren irintze lanetan ari dela errotaria, eta, bat-batean, euri jasa erortzen zaiola gainean. Galtzagorri txiki batzuek lagunduko diote herrira itzultzen, ez kilen soinuaz lagunduta. San Joan suaren inguruan amaitzen da kontua, noski.

Arima hilgarri direnen begietan bederen, buruhandi bat da Txagoitiko errotaria, baina ez da herritik bueltara dabilen buruhandi bakarra. Azken urteetan prestatu dituzten ekitaldi eta ibilaldi desberdinetan, halako beste hainbat pertsonaia sortu dituzte. Besteak beste, Mari, Basajaun eta Tartalo daude, eta galtzagorri lanetan aritzeko moduko boluntario txiki asko ere izan dituzte herrian.

Ekimen hauek guztiak duela hainbat urte abiatu ziren, herriko ondarea berreskuratzeko asmoz. Burguko udaleko herri bakoitzeko ibilbide eta kondaira bana berreskuratu dituzte, baina horiek ez daude soilik inguruko herritarrei bideratuta. Izan ere, 7hx7i.blogspot.com helbidean interesa izan dezakeen lagun ororen esku jarri dituzte ibilbideak, horiek errazago egiteko tracka eta guzti lagunduta.



Burgeluko Udala ingurumenaren, berdintasunaren eta euskararen alde lanean.

ELEKTRIKARIAK

PIZTU!

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, ETXEOAK ETA INDUSTRIALAK
BIOMUNTAILAK
SARE INFORMATIKOAK

Tel. 655 732 993 Iñigo piztusc@hotmail.com Iauzketa, 5 ORDOÑANA (ARABA)

bergara centro óptico

aguraingo audilogia zentrea · centro audiológico de agurain

Aurretiko hitzordua
Cita Previa

945302978
640126604

Helbidea
Martín Deuna
Kalea 6. Agurain

"Lehenengo Siri ezaguna da; besteak aberatsak"

IRATXE GOMEZ IRAKASLEA ETA LOKUTOREA

Fisikoki ez da ezaguna, bere ahotsa da aski ezaguna dena. Besteak beste, Siri, Appleren laguntzaile birtualari edo GPS sistemari jarri die Iratxe Gomezek ahotsa.

Mirian Biteri DULANTZI

Mundu osotik bueltaka ibili ostean, 2004. urtean Dulantzira heldu zen Iratxe Gomez bizkaitarra, eta ordutik bertan bizi da. Ogibidez irakaslea bada ere, lokuzio alorrarekin lotura berezia du aspalditik.

Noiz hasi zinen lokuzioan?

2003. urtean hasi nintzen arren, urtebete beranduago ekin nion modu formalean, banku zerbitzuen eta nazioarteko diru-igorepenen *call center* edo ahots bidezko deiguneetarako gaztelaniazko eta ingelesezko ahots gisa.

Nolatan horrelako lan batean?

Kasualitate hutsa izan zen. Garai hartan, akademia batean nengoen irakasten eta ikasle baten ama etorri zen ingeles eta gaztelaniazko lokutore elebidun baten bila, grabazio batzuetarako. Nire ahotsa erabiltzea erabaki zuten. **Ordutik askotariko lanak egin dituzu; tartean, Siriren gaztelaniazko ahotsetako bat izan zara, Apple enpresa handiak inoiz kontratatu ez bazaitu ere. Nola jakin zenuen Siriren ahotsa zinela?**

Oso kuriooa da, nirea kasu bakarra ez bada ere. Berdina gertatu zen AEBetako Siriren lehenengo ahotsa izan zen Susan Bennetekin. Bere kasuan, bere senarrak telefono bat opartu zion, eta jolasean zebilela konturatu zen bere ahotsa zela Sirirena. Ni, berriz, Txinan telebista ikusten nengoen.

Zelan izan daiteke hori?

2006. urtean, munduko TTS konbertsio-programa garrantzitsuenetako baterako, gorabeherak eta hauek konpontzeko eskuliburu bat idatzi nuen. Enpresak, fonetikako eta fonologiako nire ezagutzak eta esatari gisa nuen kalitatea ikusi, produktua berregitea erabaki zuen; orduan nire ahotsarekin eta proposatzen nituen testuak hobetzeko iradokizunak kontuan hartuta. 2010ean, Applek sistema hori erosi zuen Siri egiteko. Hortaz, nik ez dut



Iratxe Gomez 2004. urtetik bizi da Dulantzian. I.G.

inoiz izan kontraturik Applerekin. Egia da ez dela polita, baina legala da. 2017. urtean, Siriren sortzaileetako batekin, Adam Cheyerekin, elkartu nintzen eta oso esaldi polita eta indartsua esan zidan: "Lehenengo Siri ezaguna egiten da, eta besteak aberatsak".

Nolakoa da TTS konbertsio-programa bat egitea?

Bilatzen dena da hizkuntza baten soinu guztiak grabatzea. Hasieran, 11.500 esaldi eta testu grabatu nituen, gero hortik doinuak atera ahal izateko. Nahiko luzea izan zen, hiru astekoa, egunean bospasei ordu grabatzen. Gero, zabalkuntzak eta berrikuntza egin nituen, 5.000 eta 7.000 gehituz.

Siri izateaz gain, GPSetan ere zure ahotsa entzuten dugu.

Hala da. TTS konbertsio-programetan ez bezala, horrelako grabaketan gidoia duzu. Esaterako, herrialde baten toki, hiri edo kale guztiak dituzu. Oso lan aspergarria da, zenbakiak adibidez 1etik 100.000era bitartean grabatu behar dituzulako, eta berdin kilometroekin. Arrisku-

tsua da aspertzen zarenean zure ahotsa aldatu egiten delako, eta, beraz, arreata handiz egin beharreko lana da, ez galtzeko, bate-tik; eta doinua mantentzeko, bestetik.

Zer izan behar du ahots batek erakargarria izateko?

Bilatzen duzunaren arabera. Esaterako, GPSrako egiten baduzu, lasaigarria behar du izan, eta ez oso zorrotza edo baxua. Zorrotzegia baldin bada, ibilgailuaren motorrarekin trabatzen da, eta ez da ondo ulertzen; eta baxuegia izanez gero, kakofonia aspergarria izaten da eta gidaria urduri jartzen du.

Bestalde, bikoizketa lanak ere egiten dituzu, ezta?

Bai, eta baita irrati-saioak ere. Pelikula eta musikal batean lanean nabil orain; fisikoki agertuko ez banaiz ere, nire ahotsa agertuko da horietan. Horrez gain, astero grabaketak egiten ditut Euskadi Irratirako. Bestetik, aurkezpenak ere egiten ditut. **Guztien artean zein da gehien gustatu zaizuna?**

Once Fundazioarentzat egindako ekitaldi bat izan zen, 40. urteu-

rrena ospatu zueneko. 500 itsu inguru zeuden entzuten, eta bertan lauzpabost pertsonaia ezberdin egin behar nituen zuzenean. Oso zaila izan zen, baina, aldi berean, oso polita eta pertsonala. Siriren ahotsarekin apurtzeko aukera ona izan zen saio hori; askatzailea izan zen niretzat.

Nondik ateratzen duzu denbora horrenbeste gauza egiteko?

Ez dut lorik egiten. Goizez irakatsi egiten dut, arratsaldean familiarekin pasatzen dut eta gauean grabaketak egiten ditut; bidaiatzen ez dudanean, noski. **Azken horrekin lotuta, Internetek asko erraztuko zuen lan hori, edo?** Izugarri. Gaur egun, grabaketak egin ditzaket nire etxetik, grabaketa estudioa daukat eta. Mundu osotik ibilitakoa naiz, grabaketa estudio batetik bestera; lehen egun bat Txinan ematen nuen eta hurrengo Alemanian. Baldintza horietan oso zaila zen bizitza familiarra eta laborala bateragarriak egitea. Internetek arazo hori konpondu du. Baina, horrek ere baditu bere alde txarrak, etxean sartuta oso bakarrik sentitzen zarelako. Elkarlana eta harremanak galtzen dira.

Ahotsa asko zaindu beharko duzu?

Are gehiago irakaslea izanda...

Bai. Gertatzen dena da irakasleei ez zaiela irakasten haien ahotsa ondo erabiltzen, eta gero, arazoak datoz. Horregatik zaindu behar dugu, ur asko edan, propolia hartu eta hitz egiten aurretik, berotu.

"Herriak berpiztu behar ditugu"

Dulantzin gustoko duzun toki bat?

Plaza nagusia.

Eta Lautada

mailako toki bat?

Henaiko Kastroa. Botere eta historia handiko toki.

Euskal Herrikoa toki?

Anboto.

Gustoko duzun ahots bat?

Constantino Romerorena.

Irakurri duzun libururik

gustukoena?

Asko daude, baina momentuaren arabera. Orain Alex Coltekin nabil. Bestalde, *El clan del oso cavernario* asko gustatu zitzaidan, eta baita literatura gotikoa ere.

Zein nahiago, Siri edo Alexa?

Ez bata eta ez bestea.

Mezu bat

zabaltzeko aukera bazenu...

Dulantzik mundura.

Landa eremua berpiztu behar dugu, lanarekin bateratuz.



IPUINEN POTEREA

Umez gozatu egiten genuen irakurtzen edo kontatzen zizkiguten ipuinekin.

Zergatik ez jarraitu ipuinekin gozatzen? Are hobeto. Zergatik ez ditugu gure ipuinak sortzen? Zergatik ez kogeneratu?

Nerea Nacenta

- Opari bat egin nahi baduzu.
- Zure bizitzan trabatuta bazaude eta bultzada behar baduzu.
- Inspirazioa nahi baduzu.
- Edo soilik sortzea gustatzen bazaizu.

Jar zaitez nirekin harremanetan eta ipuin bat sortuko dugu.

 @Zentro-Consciencia-y-bienestar

 607598070

 @zentroconsciencia

 @nenacenta@gmail.com





Olaona jatetxe eta gasolindegia inguruko lurak ukitzen ditu Solariaren proiektuak. ARITZ MTZ. DE LUNA

Eguzki plakak proposatu dituzte, elikagaien orde

Barrundia inguruan bi parke fotovoltaiko eraikitze planak dituzte Solaria eta New Circle Energy multinazionalak. Egoera aztertzen ari dira ahopeka, eta hainbat batzar administratiborekin hitz egin dute jada. Nekazaritza lurak okupatuko lituzkete.

Estibxu U. Lz. de Arkate BARRUNDIA
Eolikoarekin batera, energia fotovoltaikoaren ezlandak bete-betean hartu du Araba. Dagoneko ezagunak dira Arrazua-Ubarrundian, eta Komunioi, Zubillaga eta Fontecha herrietan Solaria eta Repsol multinazionalak aztertzen ari diren proiektuak. Bada, Lautadan ere ehun hektareako proiektu bat koka-

tzeko lurra bilatzen ari da Solaria, bigarren parke fotovoltaikoa egiteko.

Espainiako multinazionalak, alde batetik, Burguko Administrazio Batzarrera jo du, eta, bestetik, Quilchanoko Komunitatera. Azken horrek Argomaiz, Etxabarri-Urtupiña, Mendixur, Gebara eta Burguko herrien artean dagoen ermita bat eta

landa-lurak biltzen ditu. Alfonso Ortiz de Zarate Burguko Administrazio Batzarreko lehendakari eta Quilchanoko Komunitateko nekazari eta presidentek Radio Vitorian azaldu duenez, hasiera batean, ez daude prest lurak Solariari alokatzeko.

Paisaiari eragiteaz gain, lur emankorrik gabe geratuko lira-

tekeela esan du Ortiz de Zaratek, eta parke fotovoltaikoak inguruan lan egiten duten hogeikazari ingururi eragingo lieke.

Alta, ez da Solariarena Barrundia udalerrian aurreikusten duten eguzki parke bakarra. New Circle Energy multinazionala ere lurzoru bila dabil Agurain eta Heredia kontzejuen artean, 50 hektareako parke bat kokatzeko.

Ahopeka zabaldu diren informazioen arabera, plaka fotovoltaikoak orain arte nekazaritzako lurzoruan instalatu nahi dituzten konpainiek 1.200 eta 1.500 euro arteko alokairua eskaintzen diete jabeei, eta, kasu askotan, horrek nekazaritzako ustiategiak berak baino onura gehiago sortzen ditu.

Hutsunea legean

Eusko Jaurlaritzak energia berriztagarria %405 handitzea aurreikusi du, 2019an 466 MW izatetik 2030ean 2.356 MW izatera igaro nahi baitu. Hain zuzen ere, fotovoltaikoan egingo litza-teke hazkunde handiena: 2019an 55 MW izatetik 2030ean 966 MW izatera. Horrela jasotzen da berderen 2019an onartutako Euskadiko Jasangarritasun Energetikoaren Legean. Lege horrek Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) gartzeko konpromisoa zuen, EAEko lurzoruak eta banaketa antolatzeke, baina hori egin gabe dago.

Ozetako Isasmendi taberna berriz ireki dute

Aste Santutik itxita zegoen edaritegi ezaguna; bi ozetarrek zabaldu berri dute ekainaren hasieran.

Erredakzioa BARRUNDIA

Nagore Beltran de Herediak eta Itsaso Martinez Vargasek Aste Santutik itxita zegoen Ozetako Isasmendi taberna ireki dute berriro. Biak bizi dira Ozetan, eta biek dute ostalaritzan esperientzia.

Hemendik aurrera, beraz, eguneroko barra zerbitzua eskainiko dute, eta asteburuetan eta jaiegunetan ogitartekoak, plater konbinatuak eta mokadutxoak ere emango dituzte. Barrundiako auzotarren ohiko topaleku da Isasmendi taberna, baina, horrez gain, txirrindulariak, mendizaleak eta urtegiara joaten diren arabar ugari ohitura zuten Ozetako tabernatik pasatzeko itxi zuten arte.

Barrundian otordua egiteko, beraz, badago beste aukera bat. Jaki gozoez eta giro politaz goza daiteke bertan, eta bide batez herriko txoko ezezagunak deskubritu.





Aratzeko tontorretik bostehun bat metrora aurkitu zuten Basterretxearen Araba eskultura. IÑIGO LEZA

'Araba' berreskuratu dute, hogeï urte eta gero

Duela 25 urte, Nestor Basterretxearen 'Araba' eskulturaren erreplika bat kokatu zuten Aratz mendiaren tontorrean. Handik gutxira desagertu zen, baina ekainaren hasieran Araiako bizilagun batek topatu, eta Asparreneko udaletxera jaitsi zuen.

Erredakzioa ASPARRENA

Bada mende laurden bat 90. hamarkadaren erdialdean Nestor Basterretxea artistaren *Araba* eskulturaren erreplika Aratzeko tontorrean jarri zutela, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa bertan elkartzeak zuen balio sinbolikoagatik. Jatorrizko artelana egurrezkoa da, baina erreplika egiteko brontzea erabili zuten Basterretxeak.

Hala ere, handik bi urtetara erreplika desagertu egin zen, eta haren arrastorik gabe bi hamarkada baino gehiago igaro ostean, Araiako bizilagun batek topatu zuen. Aritz Albisuk aurkitu zuen ekainaren hasieran, Aratzeko tontorretik 500 metro ingurura zebilela. Misterioa izaten jarraituko du, momentuz, hogeï urtez obra oharkabea igaro izanak.

Albisuk ez zuen pieza ezagutu hasiera batean, baina argazki bat atera zion, eta bere emazteak, Amaiak, Aratzen duela hainbat urte desagertutako eskultura zela argitu zion. Argazkia bolo-bolo zabaldu zen sare sozialetan, eta Asparreneko alkate Txelo Auzmendiren gana iritsi zen.

Ondoren, Auzmendi artistaren seme Gorka Basterretxearekin

jarri zen harremanetan, eta azken horrek baieztatu zuen topatutako eskultura bere aitaren artelanaren erreplika zela.

Laster hasi ziren obra jaisteko lanak. Asparreneko bizilagun talde batek ekainaren hasieran jaitsi zuen 40 kilo inguruko erreplika, patata zaku baten barruan eta bi hodiren gainean altxatuta, Aste Santuko prozesio batean bezala Asparreneko udaletxera eramateko.

Txelo Auzmendi alkateak azaldu duenez, momentuz bertan gordeko dute, eta aurrerago erabakiko dute zer egin edo non jarri erreplika; betiere artistaren familiarekin adostuko dute non jarri. Zentzu horretan, Gorka Basterretxea semea Asparrenean izan berri da, eta badiro bi aldeak ados daudela *Araba* Arian geratzeko, baina oraindik ez dute erabakirik hartu.

Aguraingo karrozen ehun urte irudietan bildu dituzte

260 argazki koloretan eta beste 80 zuri-beltzean jaso ditu Kepa Ruiz de Eginok erakusketarako


Erredakzioa AGURAIN

San Joan eguna Aguraingo herritarrek gehien espero dutenetako bat da. Iaz eta aurtan ezin izan dituzte ospatu herriko zaindariaren omenezko ospakizunak, pandemiaren ondorioz. Hala ere, aurtan, azken ehun urteetan egindako 340 argazki baino gehiagoko erakusketa batean herriko karrozen desfilearen nondik norakoak jaso dituzte. Ekainaren 26tik aurrera erakusketa zabalik dago Zabalarten.

Aguraingo karrozak apaintzeko errebindikazioa eta umorea erabiltzen dituzte bizilagunek, eta ekainaren 24an, goizeko zazpitan, Aguraingo Udaleko korporazioarekin batera doan segizioaren parte dira, Arrizalako Ergoiena auzoraino.

Kepa Ruiz de Eginok erakusketaren sustatzailea eta antolatzailea izan da. Bizilagunei eskatu zizkieten argazkiak emateko, eta "mugimendu handia" egon dela adierazi du Ruiz de Eginok. 260 argazki koloretan eta beste 80 zuri-beltzean jaso dituzte.

Aguraingo karrozak Errepublikaren aldarrikapen bezala jaio zirela uste da, 1930. urtetik aurrera.





Galarretako elizako hondakinak berritu dituzte; tartean, ateak. PHOT.OK

Bukatu dira Galarretako eliza txukuntzeko lanak

Irudi berria estreinatu du Andre Mariaren Jasokundearen elizako inguruneak, bertako kanpandorrea erori eta zazpi urte beranduago, eraikineko hormak eta ate erromaniko zein errenazentista finkatu eta konpondu ostean.

Erredakzioa GALARRETA

Urteetako utzikeriaren ondorioz, 2014. urteko uztailaren 10eko gauean eztanda handia entzun zen Galarretan. Andre Mariaren Jasokundearen elizako XVII. mendeko kanpandorrea erori zen momentu hartan. Gertaera horrek eztabaida piztu zuen, orduko eta gaur egun Galarretako alkate Aurelio Saenz de Bikuñak zein herritarrek behin eta berriro ohartarazi zutelako ingurunearen eta bereziki kanpandorrearen egoeraz. Inguruko ordezkari politikoei ere ondarearen babesarekin axolagabe jokatzeara leporatu zioten orduan Arabako Diputazioari.

Kostata bada ere, zazpi urte geroago, itxura berria du inguruak. Kanpandorrea goitik behera jausi zen, eta, hortaz, ezinezkoa izan da berriz ere zutik paratzea, baina bi ateak eta hormak finkatu eta txukundu egin dituzte hainbat hilabeteko lanen ondorioz.

Balio historiko eta artistiko handiko eliza da Galarretakoa. Hasierako eraikina XII. mende amaierakoa zen, baina XVI. mendean bota zuten eliza errenazen-

tista bat eraikitzeko. 1950eko hamarkadan elizaren ganga erori zen, eta bertako jatorrizko altzariak Gasteiz hiriburuko Babesgabeen Andre Mariaren elizara eraman zituzten; tartean, XVIII. mendeko erretaula barrokoa.

1979. urtean, Foru Aldundiak eliza eta dorrea birgaitzeko proiektua diseinatu zuen, baina horrek ez zuen aurrera egin, eta denborarekin hondatzen joan zen, 2014ko udan kanpandorrea erori zen arte. Ordurako, Diputazioak bazuen esku artean egitasmo berri bat kanpandorrea konpontzeko eta finkatzeko, herritarren ohartarazpenen aurrean. Baina, esku-hartzea berandu iritsi zen.

Erromanikoa eta errenazentista

Gaur egun, elizaren hormez gain, bi ate mantentzen dira zutik: bata, erromanikoa, zaharrena; eta bigarrena, errenazimendu garaikoa, ikusgarriena. Bata eta bestearen artean 400 urte inguruko aldea dago. Merezi du Galarretaraino joatea eta elizaren aztarnetatik zehar historian atzera egitea.

IRAGANA GOGORATU,
GEROAREKIN AMESTEKO
ETA GAURKOAZ GOZATZEKO!



Asparreneko Udala



Mercedes Duran, Isabel Martinez de Maturana, Maribel Arakama, Clara Mugika eta Eli Arakama dira omendu dituzten emakumeak. ALBERTO MELENDEZ

Latsariak Zalduondoko historian jaso dituzte

Herriko garbitokian lan egiten zuten emakumeak omendu dituzte, eta kontuan hartzen ez den lana nabarmendu dute Zalduondoko. Udala emakumeen memoria ere herriko historian txertatzeko eta berreskuratzeko lanean dabil aspaldi.

Estitxu U. Lz.de Arkaute ZALDUONDO "Garbitzen hotza pasatzeagatik omenaldia egiten didazue? Ezin dut sinistu". Hala jaso du, negarrari ia ezin eutsiz, Zalduondoko emakume batek bere bizilagunek herriko latsarrian ekitaldi publiko batean eman dioten esker ona. Emozioz eta harrotasunez.

Mercedes Duran, Isabel Martinez de Maturana, Maribel Arakama, Clara Mugika eta Eli Arakama dira omendu dituzten latsariak. Garbitokian plaka bat ere jarri du Zalduondoko Udalak, Rosario Apaolaza Lopetegiren Txarritoren irudiarekin, mende honen hasieran oraindik modu tradizionalan garbitzera joaten azken emakumea.

Izan ere, latsariei egindako omenaldiaren abiapuntua Rosario Apaolaza Lopetegi izan da. "Hemen Txarrito deitzen genion, artzaina zen eta lan hori egiten zuen. Bere izenean lan horretan ibiltzen ziren emakume guztiak omentzea pentsatu genuen, pertsona horri plaka bat jartzea; asmoa zabaldu zenean, jendea hitz egiten hasi zen, eta lan hori

egiten zuten emakume gehiago atera ziren".

Gustavo Fernandez Billate Zalduondoko alkateak azaldu du herriko emakumeek familiaren arropa garbitzen eginiko lana aitortu nahi izan duela Udalak, "batez ere pandemia garai hauetan, non garbitasuna oso presente dagoen, lan horrek duen balioa azpimarratu nahi izan dugu".

Emakumeen lanari aitortza

Iragan ekainaren 14an antolatu zuten ekitaldia. Modu xume batean, latsarrian ibili ziren herriko bost emakumeri hitz batzuk eta lore-sortak oparitu zizkieten. Bertako alkateak azaldu duenez, "harridura eta emozio handiz, eta harrotasun puntu batekin" jaso zuten omenaldia: "Beraientzat lan arrunta zen, eta ez zuten espero inondik inora inork aitortzea egindako lana".

Ekitaldi horretan jende asko bildu bazen ere, alkatearen irudikoz, garrantzitsuenak izan da asmoa eta historia bolo-bolo ibili direla herrian, eta "hitz egin da emakumeek egiten duten

lanari buruz, kontuan hartzen ez den lanari buruz hain zuzen ere".

Izan ere, emakumeek egin duten ekarpena berreskuratzeko eta nabarmentzeko lan-ildo bat du aspalditik Zalduondoko Udalak. "Zalduondoko historiari buruz kanpora begira ditugun erreferenteak denak dira oso maskulinoak: Zeledon, Markitos, Atxaga, Blas Arratibel..., denak dira gizonezkoak. Halere, egunerokoan emakumeen lana ezinbestekoa izan da gizartea eta herria aurrera ateratzeko, eta memoria horri behar duen garrantzia eman nahi diogu".

Hartara, azken urteetan Estibaliz de Iloa Inkisizioaren jazarpena sufritu zuen Lautadako emakumearen izena jarri diote Iturbero eta Bidezahar auzoen artean dagoen parkeari. Halaber, "Zalduondoko gure historia txikiaren ere emakumeen ekarpenak jaso genituen, eta 2017an Zalduondo Indarkeria Matxistatik Gabeko Udalerria izendatu genuen eta konpromiso zehatzak hartu genituen horretan lan egiteko".



Rosario Apaolaza Lopetegiren irudia jarri dute herriko latsarrian. ALBERTO MELENDEZ


Hogar Larrea
Residencia para Mayores

945 31 72 02

**Etxebitarte 2,
Larrea (Araba)**



Estazio zaharra eta inguruak txukuntzeko lanean ari dira Erentxungo herritarrak. ARITZ MARTINEZ DE LUNA

Bigarren aukera bat Erentxungo geltokiari

Bi urte dira Erentxun herriko tren-estazioa lehengoratzeko lanak hasi zituztela, sastraka artean hainbat urtez ahaztuta izan eta gero, eta lan berriekin jarraitzen dute; bereziki herriko edadetuentzako gunea izatea nahi dute.

Anakoz Amenabar ERENTXUN

1967ko abenduaren 31n lotu zituen azkenekoz Vasco-Navarroak Bergara eta Lizarra, eta betirako itxi zuten, besteak beste, Erentxungo tren geltokia. Urteetan sastraka artean gordeta egon ostean, baina, berriz ikusgarri jarri dute herritarrek estazio zaharra.

Duela bi urte hasi zituzten lehendabiziko lanak. "Lehenengo teilatua egin genuen, forja lanak ondoren, eta igogailurako beharrezko obrak; aurten, leihoak jarriko ditugu, eta horma nagusienak ere txukunduko ditugu", azaldu du Jose Javier Lekuona Erentxungo Batzar Administratiboko presidenteak.

Vasco-Navarro trenaren ibilbidean bide berdea prestatzea erekin batera hasi ziren Erentxungo estazioaren inguruko lehenengo gogoetak, Imanol Arriolabengoa Administrazio Batzarreko bokalak gogoratu duenez. "Garai hartan indar handia hasi zen hartzen bizikletaz ibiltzeko bide moduan,

eta estazioarekin zerbait egin behar genuela pentsatu genuen; herritarrei begira, eta baita bisitariei begira ere, txukundu beharra zegoen". Ondoko lursaileko *cochera* prestatu zuten aurretik, eta hurrengo erronka geltokia zuten.

Aldundiak duen Obra txikien deialdiarekin egiten ari dira lanak, atalez atal, eta aurrera begira zer pauso eman aztertzen ari dira orain. Herritarrentzako topaleku bat izatea nahi dute, baina zehaztu gabe dute oraindik emango dioten erabilera: "Bereziki edadetuentzako topalekua izatea nahi dugu, baina beste herritar guztiak ahaztu gabe; beharbada sukalde bat ere izango du topaleku horrek", aipatu du presidenteak.

Eraikinaren inguruan ere hainbat lan egin zituzten, joan den urtean, sastraka eta lur artean gordetakoak azaleratzeko. "Auzolanari esker, geltokiaren nasa azaleratzen joan da, eta nahiko ongi geratu da, oraindik lana dugun arren", gogoratu du Lekuonak. Bideak konpondu eta atsedenerako tarte bat prestatzea da asmoa. "Erronka moduan hartu genuen inguru hau hasiera batean, eta konaturatu gara altxortxo bat dela".

Barruan, bi pisuak txukundu eta eskailerrak behar moduan jarri nahi dituzte hurrengo hilabeteetan. "Oraindik ez dugu erabaki zehatz nola jo aurrera, baina helburua hori da", nabar-

mendu du Arriolabengoak. Auzolanari esker garbitu dituzte inguruak, eta hemendik aurrera ere herritarren laguntza eskatuko dute txokoa prestatzeko. "Zorionez, inguru honetan oso ondo funtzionatzen du auzolanak; urtean hiru-lau aldiz elkartzen gara lagun asko, eta inguruak behar moduan uzteko aukera ederra da, eta, aldi berean, topaleku polita herritarrentzat".

Geltokiaren memoria

Eraikina eta inguruak prestatzearekin batera, memoriari ere tira egin diote Erentxungo geltokian bizi izandakoak gogoratzeko. Lehengoratzeko lanak hasi aurretik, ekitaldi bat egin zutela gogoratu du Arriolabengoak. Ikus-entzunezko bat aurkeztu zuten, Vasco-Navarroak izan zuten garrantziaz jabetzeko. "Eta ezagutzen ez genuen aldea ezagutu genuen nagusiei esker. Edadeko gizon batek garaiko argazki zaharren erakusketa prestatu zuen, eta istorioak ere kontatu zizkigun. Eta estazio arduradunaren alaba ere izan zen ekitaldi hartan; oso hunkigarria izan zen".

BI PISU DITUEN ERAIKINA HERRITARREN TOPALEKU IZATEA NAHI DUTE

UTILIZA EL CON TENE DOR NARANJA

Nuevos buzón de tapa naranja para depositar la fracción orgánica. 11 puntos de recogida neumática en Agurain

AGURAIN URBES

Por un **AGURAIN** sostenible

AGURAIN jasangarriaren alde

Instalación 3er buzón 3. edukiontzia ezartzea

AGURAIN URBES

ERABILI EDUKIONTZI LARANJA

Tapa laranjaren erabilera, frakzio organikoa uzteko. 11 puntu Agurainen

AGURAIN URBES



Napoleonen tropek izugarritzko dirutza utzi behar izan zuten Arabako lautadan: dirua, artelanak eta harribitxiak. GASTEIZKO UDALA

Frantsesek utzi zutena, amets

1813an, Gasteizko Bataila deitutakoan, soldadu frantsesak estu eta larri ibili ziren, eta, alde egitean, beraiekin zeramaten altxorra atzean utzi behar izan zuten. Altxor horrek mota guztietako espekulazioak eta ametsak eragin ditu.

Juanma Gallego BURGU

Euskal Herriko historian inoiz izan den altxorrik handiena esku batetik bestera ibili zen duela bi mende inguru, Arabako lautadan. 1813an izandako Gasteizko Batailan, ihesean zirela, frantsesek beraiekin zeramatzaten dirutza, artelanak eta bestelako altxorrak atzean utzi behar izan zituzten. Ospil gehiena soldadu aliatuek eskuratu zuten arren, urte luzez, altxor horren zatiren bat oraindik nonbaiten egon zitekeelako susmoak imajinazioa piztu du.

Istorio honetan murgildu baino lehen, ohar garrantzitsu bat. Urrezko altxorrak daude, baina erdi lurperatuta dagoen burdinazko xafra herdoildu bat ere altxor nabarmena izan daiteke, aurkikuntza hori interpretatzeko gai den aditu baten eskutan bederen. Hortaz, zerbait bitxia

aurkituz gero, jakinarazi ondare arloko adituei, arrastoa tokitik mugitu gabe. Ez egin, beraz, Indiana Jonesena: benetako altxorrak, politenak, istorioetan aurkitzen dira.

Gauzak argituta, goazen eskuak irinean sartzera. Horretarako, adituengana jotzea da hoberena. "Batailaren aurreko egunetan Gasteizera irisi zen urrez eta zilarrez osatutako konboi bat, Napoleonek bidalitakoa Espainiatik ihes egiten ari zen armadari ordaintzeko", azaldu du Emilio Larreina historialariak. Frantsesek zeramaten dirutza horri beste altxor bat gehitu behar zaio, Espainian arpilatutako artelan eta bestelako harribitxiez osatutakoa. "Batailan zehar, konboi hori erretiratu nahi zutenerako, beranduegi zen. Duratik Frantziara zihoan bidea itxita zegoen, eta frantsesek Iruñera

joatea erabaki zuten. Hara zihoan bidea, baina, landa bidea zen, eta zalgurdiak ez aurrera ez atzera geratu ziren". Ondorengo ihesaldian, altxorra denen eskura egon zen.

Ezustea zekarren mandoa

Gaiari buruzko istorioak belau-naldiz belaualdi mantendu dira zenbait familian. Horren adibide bat gertutik ezagutu zuen Larreinak, artean gaztetxo bat zela. "1963an, nire aitaren lagun min bat udaltzaina zen, eta, agian garaiko polizien artean bera leituenetako bat zelako-edo, Gasteizko Batailaren 150. mendeurrenean, berari egokitu zitzaion Kordoi Etxean jarrita zegoen maketaren inguruan azalpenak ematea. Bada, esan zigun haren familiak ere dirua irabazi zuela altxorren kariaz. Kontatu zigunez, ihesean zeuden frantsesek

ume bat hartu zuten, gidari lanetan lagun ziezaien. Aitaren lagun horren emaztearen aitona edo birraitona bat izan zen ume hori. Ihes egitea lortu zuen, eta, etxerako bueltan, fardelak zeramatzan mando bat aurkitu zuen. Animalia etxera berarekin eramane zuten, eta orduan konturatu ziren fardeletan altxor txiki bat gordeta zuela: zilarrezko argimutilak, erretiluak...".

Larreinen esanetan, baliteke antzeko gauzak gertatu izana behin baino gehiagotan. Halere, berak ez ditu sinesten bataila horretan altxorren zati batzuk lurperatu zituzten istorioak. Historialariaren ustez, batailaren egun hori oso zaila izan zen, eta soldaduak izan ziren ospil gehiena eskuratu zutenak. Artelanei dagokienez, ezaguna da Wellington jeneralak hainbat eta hainbat koadro eraman zituela, eta, horiek itzultzeko aukera eman zuen arren, Fernando VII.a erregeak oparitu zizkiola.

Familietan kontserbatutako istorio horiez gain, historiak egun horretan aberastu zirenen aztarnak utzi ditu. "Batez ere soldadu ingelesak izan ziren", nabarmendu du Larreinak. "Soldadu batek garai horretan gaur egungo milioi bat liberaren pareko dirutza eraman zuen. Orkatilen altueran prakak lotu zituen, eta ahal zituen txanpon guztiak eraman zituen gainean". Bertokoak ere, nola edo hala, profitatu ziren negozio horretaz. "Esaterako, bataila ostean sortu

"MANDO BATEN FARDELETAN, UME BATEK ALT XOR TXIKI BAT AURKITU ZUEN"

EMILIO LARREINA, HISTORIALARIA

"AITONAK ZIOEN ETXE AZPIAN ALT XOR BAT ZEGOELA, ETA BILA IBILI ZELA"

M. GUTIERREZ GARITANO, ESPLORATZAILEA

ziren merkatu txikietan soldaduek sei pezeta eskaintzen zituzten ogerleko baten truke. Horrela, pisu gutxiago eramane zuten".

La Exploradora elkarteak kide Miguel Gutierrez Garitanok argi dauka: "Altxorri buruzko istorio honek liburu bat merezi du". Unibertsitate garaian artelanei buruzko lan bat osatzen ari zela egin zuen topo gaiari lotuta egon zitekeen pasarte batekin. "Apaiz bat ezagutu nuen, eta esan zidan berak bazuela gordeta Goyarena izan zitekeen koadro bat". Orain damutzen da hori ikusi ez izanaz, baina ez du galtzen istorio horri berriro helteko itzaropena.

Gutierrez Garitanoren ustez, altxorrak, hein handi batean, Gasteiz salbatu zuen. Ezaguna da soldaduak ez zirela sartu hirira harrapaketa egitera. "Jende guztiak dio hori Alava jeneralari esker izan zela, eta, ez diot

batere meriturik kendu nahi, baina, hiria zaintzeko zituen soldadu apurrekin oso zaila egin-go zitzaion arpilatzea ekiditea. Nire hipotesia da hirian ez zela harrapaketak gertatu soldadu horiek kanpoan Espainiako altxorrik handiena eskura izan zutelako", babestu du. Oroitarazi duenez, Donostiaren kasuan ingelesak sartu ziren hirian, izugarrizko sarraskia eginez.

'Monsieur' Ducasse

Larreinen kasuan bezala, Gutierrez Garitanok badu familian bertan altxor horri buruzko istorio bat. 1940ko hamarkadan, haren aitona Rafael Gutierrez Benito zinegotzia izan zen, eta Udal Artxiboko argazkilaritza atala sortu zuen. Bada, artxi-boetan altxorrari buruzko istorio bat aurkitu zuen. "Egia esanda, ez dakit oso ondo txantxetan ala egiatan esaten zuen, baina kontua da aitona beti esaten zuela altxor baten bila ari zela, eta etxe azpian zegoe-la". Gasteizko Batailaren garai-koa izanik ere, kasu honetan, hiriburuan lurperatuta ei zegoen, gaur egun Legebiltzarra dagoen eraikinetik gertu, eta dokumentatuta dago *monsieur* Ducasse izeneko herriar frantses bat horren bila abiatu zela. Ez da ezagutzen pertsona hori soldadu ohia izan ote zen, ala lehen eskuko informazioaren bat ote zuen, baina errealitatea da sinetsita zegoe-la horretaz.

Udal agirian dokumentatuta dagoen kontakizunaren arabera, 1847ko uztailean Udalari proposatu zion Prado kaletik gertu indusketa bat egitea. Akordio batera iritsita, indusketa lanei ekin zieten, baina ez zuten ezer aurkitu. "Agirian zehazten ez den arrazoiren bat zela-eta, indusketa horrek oso denbora gutxi iraun zuen". Gutierrez Garitanok ez du galtzen inguruetan zerbait aurkitzeko itxaropena. "Ez dut uste oso konplikatu izango zenik eremu horretarik georadar bat pasatzea, adibidez". Ohi bezala, gaiak eta proiektuak pilatzen zaizkio Gasteizko esploratzaileari; egunotan Alejandro Handiaren arrastoak aurkitzeko saiakerai edota Ekialde Hurbileko istorioei lotuta dago.

Gasteizen ez ezik, Lautadako lurraldeetan antzeko zerbait gorde izanaren aukerak agian ez dira oso handiak, baina, geratzen diren lorratz txikiei helduta, batek daki zer egon daitekeen gaur egun soro, landa edo baso diren eremuetan. Familia askotan, horren inguruko kontakizunak mantendu dira, berderen, eta egun pasarte historiko izan ziren horiek herrietako mitologian ere txertatu dira. Dena dela, istorio on guztietan bezala, altxorra aitzakia baino ez da. Horren bila abiatzeak dakarren ilusioa da, finean, bizitzari distira gehien ematen diona. ■

Argomaizen, kondaira biziberritu dute

Gasteizko Batailaren oroimena errotik finkatuta dago Lautadako herri askotan, frantsesek alde egiteko egin behar izan zuten ibilbidea eskualdetik igaro zelako. Modu berean, litekeena da norbaitek dirua edo harribitxiak eskuratu eta nonbaiten ezkutatu izana, ihes egin ondoren, eta bizitza salbatuz gero, gero horren bila bueltatzeko. Historiak, noski, frogak behar ditu; baina, horrelako zerbait gertatuz gero, ez dirudi erraza izango zenik gertaera hori nonbaiten idatzita agertzea. Horregatik, lehen momentuetatik, batailaren ondorengoek esamesak piztu zituen, eta ondoren hainbat egilek egindako kontakizunek ere indartu zuten kondaira. Esaterako, Benito Perez Galdos idazle ezagunak egun batetik bestera aberastutako bizilagunen istorioak hauspotu zituen, *El equipaje del rey José* izeneko eleberrian. "Baserritar asko aberastu egin ziren gau horretako arpilaketarekin, eta Araban eta Errioxan badira aberatsak diren familiak; euren dirutza Gasteizko Batailatik etorri zen".

Abiapuntu horretan abiatuta, Alvaro Ruiz de Gordoak Argomaizko bizilaguna arduratu da aspaldiko kondaira bat



Basoetan gordetako altxorrez beterik daude kondairak. M. ARRAZOLA / IREKIA

biziberritzeaz, eta, batez ere, umeei begira egokitzeaz; modu horretan, ondarearen transmisioa bermatu nahi izan du, errealitatea eta fikzioa nahastuz.

Enbor baten zuloan

"Honetan, abiapuntua da inguruetan kontatu izan den kondaira bat", azaldu du Ruiz de Gordoak. "Beste leku askotan kontatzen den istorioen antzekoa da: Kiltxano basotik gertu, artaldea zaintzen ari zen artzain batek urrez beteriko poltsa bat aurkitu zuen. Arkume baten larruan sartu, eta basoan ezkutatu zuen, enbor baten zuloan. Hurrengo egunean, baina, aurkitutako altxorra berreskuratzeke hara joan zenean, urrez betetako poltsa desagertua zegoen".

Halako istorio bat eskutan izanda, zaila da muzin egitea kontakizun hori frantsesen inguruan dauden esamesekin lotzeari, eta hala egin zuen Ruiz de Gordoak. Horrela, inguruetan lokatzetan trabatuta geratu zen konboia abiapuntu gisa hartuta, aurrera egin ahal izateko bidean utzitako fardelen artean urrezko poltsa bat imajinatu zuen Ruiz de Gordoak, eta ohiko kondairarekin lotu zuen.

Kondairan aipatutako artzainak agian ez zuen altxorra aurkitu, baina 1970ko hamarkadan Etxabarri-Urtupiñako bizilagun batek altxor hori bilatzeari ekin ziola ezaguna da inguruetako herrietan. Ur-azti horietako bat kontratatu zuen, topatzeko moduan ote zegoen. Ez omen zuen ezer aurkitu.





'Muskerrak' artekoa, pasa den azaroan, Agurainen antolatutakoa. MUSKERRAK



Ekainaren 13an, Bilboko Kopan lehiatu zen taldeetako bat. MUSKERRAK

Euskara eta kirola uztartzen

Eskualdeak hockey eta irristaketa elkarre indartsua du, Agurain, Iruraiz-Gauna, Barrundia eta Dulantziko 4 urtetik gorako kirolariak dituen. Euskarak garrantzia handia du Muskerrak klubean, antolatzen dituzten jarduera guztiak euskaraz direlako.

Mirian Biteri AGURAIN

Lautadako Muskerrak hockey eta irristaketa kluba 2014ko ekainean sortu zen, eta gaur egun eskualdeko 100 bazkidez dago osatuta. Eratu zenetik, hockeya eskaintzen du Agurainen: umeen taldea sortu zuten hasieran; amateur taldea, 2018. urtean; eta federatuena, 2020an. Horrez gain, irristaketa ere egiten dute umeei zein helduei.

Denera, lau modalitate eskaintzen ditu gaur egun klubak: hoc-

key eta irristaketa eskolarra, 4 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoak batzen dituztenak eta Eskola Kirola kanpainaren barruan daudenak; hockey federatua, txapelketetan lehiatzeko taldea; eta amateurrena, federazioaren lizentziarik gabekoa, 16 urtetik gorakoentzat.

Agurain eta ingurukoak

Klubeko kide Leticia Ruiz de Gaunak azaldu du jarduera eta entsegu guztiak euskaraz egiten

dituztela, eta Aguraingo udalerrikoek gain, inguruko herriko jendea ere badutela klubean: Barrundia, Iruraiz-Gauna eta Dulantzikoak. Azpimarratu duenez, "landa eremuan behar bezalako zerbitzu eskaintza aldarrikatzen dugu, Lautadan bertan irristaketa eta hockeya praktikatzea nahi dugu. Hori lortzeko, elkartuta askoz hobe. Elkarrekin talde bat osatu edo ikastaro bat eskaini ahal dugu edo, besterik gabe, ekintza bat antolatu".



Hockey eta irristaketa eskolarra eskaintzen du klubak. MUSKERRAK

Ikasturte berrira begirako erronkak zehaztuta ditu klubak. Lau dira: batetik, hockey federatuen kategorietan parte-hartzea finkatzea Euskadiko ligetan: amateur, infantil eta senior kategorietan; bestetik, hockey eskolarrean parte-hartzea lehen-dabiziko aldiz Eskola Kirolean antolatutako ligan; hirugarrenik, Agurainen hockey lehiaketak antolatu ahal izateko baldintza teknikoak betetzen duen kantzak lortzea; eta azkenik, irristaketa

eta hockeya sustatzeko ekintzak antolatzea. Azken horren baitan, uztailaren 3an, bi kirol jarduerak ezagutarazteko ekimen irekia antolatu dute Erentxungo kantzak, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Adin guztietakoak daude gonbidatuta, patinak, kas-koa eta babesak baino ez dira eraman behar.

Klubaren informazio eguneratua nahi duena *muskerrak.wordpress.com* atarira sartu daiteke.

 **EROSKI** city
ALEGRIA-DULANTZI
C/ Gasteizbidea 4 / Tlf. 945 42 00 05

PROTAGONISTA

"Niretzat gastronomia ez da jana eta edana bakarrik"

ALEJANDRO SALCEDO SUKALDARIA

Anakoz Amenabar DULANTZI

Sukaldeak hankaz gora jarri ditu denbora gutxian Alejandro Salcedok (Dulantzi, 1994). Basque Culinary Centerreko bigarren promozioan ikasitakoa, azken hilabeteetan EatyJet proiektua jarri du martxan, modu berezi batean munduko sukaldaritza inguru hauetara dakarren egitasmoa. ALEA FM saioan kontatu ditu abian jarritakoak.

Zein da prestatu duzun azkeneko platera?

Ogitarteko bat izan da. Oilaskoa, Koreako ukitua duen entsalada batekin. Madrid Fusioen aurkeztu berri dugu, eta bigarren sariarekin etorri gara etxera. Herrialde desberdinen arteko nahasketa hori konbinazio izugarria izan da.

Halako txapelketaren batean parte hartu duzu aurretik?

Duela bost urte kroketa txapelketan egon nintzen, Madrid Fusioen baita ere, eta finalera heldu nintzen.

Azkeneko hilabeteetan, ordea, EatyJet proiektuarekin zabiltza buru-belarri.

Bai, Amira Lemhaoulirekin batera prestatutako proiektua da. Joan den urtean, ostalaritza itxi zutenean, zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Guretzat gastronomia ez da soilik jana eta edana, zerbait gehiago da, istorioak eta esperientziak ere badira. Eta horiek bateratuta jarri genuen abian EatyJet. Bidaia ezin zen momentuan, beste modu batera bidaiaitzeko aukera eman nahi genuen; etxetik bidaiaitzea esperientzia gastronomikoekin. Bi astean behin plan desberdin bat prestatzen dugu.

Kuba, Sizilia, New York... hainbat txoko bazkari desberdinekin.

Guk esperientzia bat prestatzen dugu. Horiek bilatu, eta dokumentazio lan handia egiten dugu txoko bakoitzarekin. Kuban, esaterako, saltsa *masterclass* bat egin genuen Instagram bidez. Txoko bakoitzean

berezitasun bat bilatzen saiatzen gara.

Jasotako plateri azken ukitua norberak eman behar die, ezta?

Bai. Ikusi genuen etxera eramaten diren bazkariak ez direla egoera onenean heltzen, eta azken ukitua emateko aukera pentsatu genuen. Bazkaltzeko momentuan prest izateko. Kutxarekin etxera iritsi, eta bost minutuan prest duzu dena.

Martin Berasategirekin, Gasteizko Zabala eta Marvelous jatetxeetan... Zenbait lan egin dituzu aurretik.

Bartzelonan egon naiz, Suedian... Betidanik praktika desberdinak egiteko gogoia izan dut. Basque Culinary Centerren gradua egin nuen, eta katapultatuta bat izan zen niretzat, baina horren ostean ere asko praktikatu behar da. Gustatzen zait aukera desberdinak probatzea.

Aholkulari moduan ere bazabiltza hainbat jatetxerentzat.

Bai, orain EatyJet proiektuarekin albo batera



Bidaia gastronomikoak prestatzen ditu Alejandro Salcedo sukaldariak. A. S.

daukat, baina jarraitzen dut. Karta berriak prestatzen laguntzen diet jatetxe batzuei, edo diru arazoak nondik etor daitezkeen identifikatzen, besteak beste. Mamiak dituen eskoletan ere ari naiz ikastaro desberdinekin: kroketei buruzkoa, nazioarteko sukaldaritza...

Nondik datorkizu sukaldarako zaletasuna?

Amak gogoratu didanez, txikitatik esaten nuen

sukaldaria izan nahi nuela. Sukaldean nenbilen beti, eta 12 urterekin lapiko artean. Eta ohiko jatetxe bat izatea ere izan zen nire ametsa lehen, baina orain ez dago lehentasunen artean.

Nolako da zure sukaldaritza?

Ez daukat eredu bakar bat. Nirea sukaldaritza mota desberdinen nahasketa dela uste dut. Horiek nahastuta ateratzen diren plater berriak sortzea.

LEHIAKETA FOTOGRAFIKOA
SARE SOZIALETAN**Begira,
Alegria-Dulantzi!**
#conocedulantzi**ANIMA ZAITEZ
ETA PARTE HARTU!****BOZKATU ZURE
GOGOKOENA!**Alegria-Dulantzi Udalak
Auzantzerako Alegria-Dulantzi

GOITIBEHERA

1

2

3

4

5

6

7

8

9

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.

1. Arabako Mendialdeako udalerria. 2. Zuen. 3. Euskal hiztegitilea (1864-1951). 4. Nafarroako ibaia. 5. Gabezia, absentsia. 6. Ehun mota. 7. Gibela. 8. Ordotsa, apotea. 9. Pluralean, zuhaitz mota.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNA

GOITIBEHERA

HITZ GEZIDUNA



(*) Arabako kuadrilla.

(*)	▼	Hunoen erregea	▼	Indar berdintasunak	▼
Gaueko		Haize erauntsia		Espartina	
▶		▼		▼	
Zeanuriko auzoa	▶				
Kanpo, landa					
Uztaila	▼	Zatiak	▶	▼	
Nafarroako udalerria		Toka, nazazu			
▶		▼			
Jainko egiptoarra	▶		Dago	▶	
Herritar		Txistua, istua		Kontso, errepikatua	▶
▶		▼		▼	
Bi bider bi	▶		Aezkoako	▶	
Ibar			Nitrogenoa		
▶		▼	Gipuzkoan, zain	▶	
					Zibiliza-zioaren hasieran



Kale nagusia 29

01200 Agurain · Lautada

Emaillez?

info@tartekamedia.eus

Informazio gehiago

945561067

WEB GARAPENA

DISEINU GRAFIKOA

ezagutu gure coworking-a

www.tartekamedia.eus





"Lautadako ALEA" aldizkaria Lautadako Euskararen Komunitateak eta Arabako ALEAk elkarlanean garatutako proiektua da.

Argitaratzailea
Arabako Alea Komunikazio taldea S.L.
Antonio de Sucre 1
01003 Gasteiz ARABA

Zuzendaria
Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa
Anakoz Amenabar
Mirian Biteri
Estibx Ugarte
Mikel Buruaga
Juanma Gallego

Komertziala
Erlantz Anda
Saio Perez de Muniain

PUBLIZITATEA
publizitatea@alea.eus
Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA
harpidetza@alea.eus
Tel.: 945 71 60 09

EGOITZA NAGUSIA
Antonio de Sucre 1, behea
01003 Gasteiz (ARABA)
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Lege Gordailua:
VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Inprenta
Bidasoa inprimatzeko zentroa

Tirada: 7.000 ale

Banaketa
Tarteka Media
Lautadako Euskararen Komunitatea

HARREMANETARAKO DATUAK
LAUTADAKO EUSKARAREN KOMUNITATEA
Zapatari 31, 01200 Agurain (Araba)

lautadan.euskaraz@gmail.com
605 29 09 51

Laguntzaile publikoak



Laguntzaile pribatuak



ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA saillean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitakoen erantzukizunik. Kolaboratzaileak: Amaia Gartzia, Naiara Lopez de Uralde, Lurdes Lekuona, Oskar Garcia de Bikufia.



GURE BIZIMODUA BESTE BAT BAINO EZ DA

Gure lehorreko ekosistemaren alde
Herriz herri jarduteko programa aurkeztu dugu.

medioambiente.fundacionvital.eus

ZURE BIZIERAREKIN BAT EGITEN DUGU

araba álava
foru aldundia diputación foral

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Instituto de
Enseñanza
Secundaria
de Murgia

Murgiako
Bigarren
Hezkuntzako
Institutoa





"Gurean, hauxe da esfortzua: palada bat eta gero beste bat".

Izaro Lestayo / KAE-1 ligako gizonetzkoen traineru bateko lehen emakumezko patroia

MULTIASEGURU KONTU Berria

Batu eta ordaindu 12 kuotatan
gasturik gabe. % 0ko UTBa*.



Bada beste modu bat

* Multiaseguru kontuak aseguru-polizen primak geroratzeko aukera ematen du: hileko 12 kuota berdinetan ordain daitezke. Kuota horiei ez zaien ez interesik ez komisio gehigarriak aplikatu. Horrenbestez, UTBa % 0koa izango da. Aseguru-polizak, kontratatzeiko unean edo berritzeiko unean lotu ahaliko zatezkie Multiaseguru kontuari. Multiaseguru kontua kreditu-txartel birtualen modutara bat da, eta beherago zehazten diren aseguru-polizen primak ordaintzeko politik erabil daiteke. Kreditu-txartel birtual hori eman ala ez Entitateak erabaki behar du, baina arretu-politikaren arabera. Caja Laboral BancaSeguros bitartekotutako Seguros Lagun Aro Vida SAn eta Seguros Lagun Aro Vida SAn polizen primak geroratzeko politik erabil daiteke Multiaseguru kontua. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi Multiaseguru kontuaren fitxa zabaldua. Adbidex: 12 hilabesetan % 0ko urteko interes-tasa nominalaren ordaintzeko 600 €-ko poliza batean, zor den zenbateko osoa 600 €-koa izango da, eta 50 euroko hileko kuotatan ordainduko da. Hortaz, UTBa % 0koa izango da.

Aseguru honen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banku-aseguretako operadore lortetia. Administrazio Enregistro Berezia inskribatuta dago, OV-0072 kiabensin. Arretuaren aseguratzaileak: Seguros Lagun Aro SA eta Seguros Lagun Aro Vida SA. Erantzukizun zibila eta finantza-aita mena estalita ditzute, indarrean dagoen legeraren arabera. Gainerako aseguratzaileak ikusteko, kontsultatu hemen: aseguruak.laboralkutxa.com